



Ukrainan egindako ikasketen homologazioa eskatzeko jarraibideak

1

Beherago zehazten diren agiri akademikoen jatorrizkoak eta haien euskarazko edo gaztelaniazko itzulpen ofizialak badituzula egiaztatu ondoren, euskadi.eus atarira sartu.

Bete Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko tituluak edo ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko eskaera.

2

Deskargatu eskabidearen frogagiria..

Orri hori erregistroan aurkeztu beharko duzu beharrezko dokumentazio akademikoarekin batera. Aurkeztu ezik, ez duzula homologazio-espeditzea hasi ulertuko da. Dokumentazio guztia ez badago, Administrazioak falta dena eskatuko dizu.

3

Ebazpena aldekoa bada, abisu bat jasoko duzu egiaztagiria ikasgunea.euskadi.eus atarian eskuragarri daukazula esateko.

Aurkeztu beharreko agiri akademikoak itzulpen ofizialarekin batera:

Batxiler titulua

- **Atestat pro zagal'nu serednyu osvitu** (Bigarren Hezkuntza Orokor Osoaren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera.
- **Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera edo **Svidoctvo pro nepovnu zagal'nomu serednû**

osvitu (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera..

- Dagokion tasa ordaindu behar du.

Batxilerreko 1. maila

Baliozkotze hori ez dago aurreikusita

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua (DBHG)

- **Svidotsvo pro bazovu zagal' un serednyu osvitu** (Oinarrizko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera edo **Svidoctvo pro nepovnu zagal'nomu serednû osvitu** (Osatugabeko Bigarren Hezkuntza Orokorraren ziurtagiria) agiriaren **jatorrizkoa, legeztatuta***, noten eranskinarekin batera.
- **Bigarren Hezkuntzako 10. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztuta*** (Beharrezkoa da gradu hori gainditua izatea eta 11. mailara pasa izana).
- Aukerakoa: **7., 8. eta 9. mailako noten ziurtagiri ofizialaren jatorrizkoa, legeztatuta***.
- Ez duzu tasarik ordaindu behar.

DBHG titulua baino beheragoko ikasketak (2.a, 3.a eta 4.a)

- Hezkuntza sistemako DBHko 2., 3. eta 4. ikasmailetan sartzeko ez da baliozkotzerik egin behar.

* Espainian aldi baterako babesaren onuradun direla egiaztatzen dutenek, Barne Ministerioak emandako ebazpenaren bidez, ez dute legeztatutako dokumentazioa aurkeztu beharrik izango.